

## GIG 08

## AITZANDIKO FLYSCH BELTZA

BALIO INTRINTSEKOA: 3,75

BALIAGARRITASUN-MAILA: 2,25

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Aitzandi puntan, flysch beltzaren Deba formazioko ebakidura adierazgarri bat ikus daiteke. Sekuentzia hori lutita grisez, hareharriz eta siderita gorrixkazko geruzez osatuta dago. 25 metro besterik ez dituen zati batean hauteman daitezkeen berezitasunak direla-eta, lekua interes handiko multzo estratigrafikoa dela esan daiteke.

Sideritazko noduluak 15-50 cm bitartekoak dira, gorrixkak, biribilduak eta, eskuarki, luzangak eta estratifikazioarekiko subparaleloak. Zenbait maila turbiditikoren oinarrian, ur-lasterraren marken adibide bikainak ere badaude, *groove* motakoak eta 0,5 m inguruko lodierakoak. Azalaramenduaren mendebaldean, halaber, hondakin begetal fosilak bereizten dira: ibaiek plataformaraino eraman zituzten hondakinak, eta gero, turbidita batek plataformatik itsas hondoraino arrastatu zituenez, itsas hondo sakon batean metatu eta fosildu ziren.

Flysch beltzaren tarte honen berezitasunik esanguratsuen jatorri piroklastikoko geruza mehe argi-argi batzuk dira. Badirudi geruza horiek tefra-motako dekantazio baten bidez eratu zirela, seguruenik Bizkaiko sinklinorioan (Geoparketik hegoaldera) izandako leherketa magmatiko edo freatomagmatiko baten ondorioz.

## NOLA BERTARATU

Sorginetxera joateko bidexka hartu eta marearteko zabalguneraino jaitsi behar da. Gero, punta alde-ara joan behar da.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ.*



Geruza piroklastiko mehe eta zuria lutita grisetan; lutita grisek, halaber, turbidita hareatsuak dituzte tartekatuta.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 553159 m / Y= 4794650 m / Alt.= 2 m



Sideritazko nodulu biribilduak, gertutik ikusita.